Abstentzioak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

3.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko proposamena eta deialdia onartzea: “Formakuntza duala egiten ari diren ikasleak kontratzen dituzten Eibarko Enpresei diru-laguntzak”

3.- Propuesta de modificación del anexo del Plan estratégico de subvenciones y aprobación de la convocatoria de “subvenciones para Empresas de Eibar que realicen contratos con alumnos/as en formación dual”.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Alkatetzak, 2018ko maiatzaren 10eko Ebazpenez, honako proposamen hau egin zion Udal Osoko bilkurari:

*Aurrena: Eibarko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatzen den diru-laguntza lerro hau jasoz:*

“Vistas la Resolución de Alcaldía, de 10 de mayo de 2018 proponiendo al Pleno Municipal lo siguiente:

*Primero: Aprobar la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones introduciendo la siguiente línea de subvención.*

| *DIRU-LAGUNTZA LERROA.* | *HELBU-RUAK* | *URTE-KO KOSTUA.* | *FUNTZIONALA* | *FINANTZA-KETA:* | *DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.* |
|---|---|---|---|---|---|
| *HELBURUA: Diru-laguntzak, formazio dualeko ikasleekin kontratuak egiten dituzten Eibarko enpresentzat.* | *- 30 urte baino gutxiagoko pertsona langabetuak kontratatzea (ez dago adin-mugarik desgaitasuna duten pertsonen kasuan), formazio- eta ikaskuntza-kontratu bidez, formazio dualaren esparru barruan.* | *40.000 €* | *241.00* | *Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kargu.* | *Zuzeneko laguntza banakako ebaluazioaren araubidez* |

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | COSTE ANUAL | FUNCIONAL | FINANCIACION | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| *OBJETO: Subvenciones para empresas de Eibar que realicen contratos con alumnos/as en formación dual* | *- facilitar la contratación de personas desempleadas menores de 30 años (sin límite de edad en caso de discapacidad) mediante el contrato de formación y aprendizaje en el marco de la formación dual.* | *40.000 €* | *241.00* | *La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto* | *Concesión directa en régimen de estimación individualizada* |

Bigarrena: oinarriak bere baitan hartzen dituen diru-laguntza deialdia onartzea, Eibarko enpresek formazio dualean dauden ikasleei kontratuak egin diezazkieten. Diru-laguntza hauek zuzenean eta banakako ebaluazioaren araubidezko prozedura bidez emango dira.

Segundo: Aprobar la convocatoria de subvenciones, que incorpora las bases, para empresas de Eibar que realicen contratos con alumnos/as en formación dual, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada

Hirugarrena: diru-laguntza hauek ematetik sortuko diren gastuei aurre egiteko 40.000 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen Udal Aurrekontuko 1.1000.471.06.241.00 partidari egotziko zaiona.

Tercero: Aprobar un gasto por importe de 40.000 €, con cargo a la partida 1.1000.471.06.241.00, del vigente presupuesto de la Corporación para atender los gastos que se deriven de la concesión de la subvención.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak bozkatu du proposamena eta emaitza hauxe izan da: aldeko botoak, 4 (Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor

eta Patricia Arrizabalaga) eta 5 abstentzio (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibañez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre). Udal Osoko bilkurari, honako erabaki hauek hartzeko proposamena egiten dio:

(Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui y Patricia Arrizabalaga) y 5 abstenciones (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

Aurrena: Eibarko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatzen den diru-laguntza lerro hau jasoz: *Diru-laguntzak, Eibarko enpresek kontratuak egin diezazkieten formazio dualeko ikasleei.*

Primero: Aprobar la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones introduciendo la siguiente línea de subvención *Subvenciones para empresas de Eibar que realicen contratos con alumnos/as en formación dual*

Bigarrena: oinarriak bere baitan hartzen dituen diru-laguntza deialdia onartzea, Eibarko enpresek formazio dualean dauden ikasleei kontratuak egin diezazkieten. Diru-laguntza hauek zuzenean eta banakako ebaluazioaren araubidezko prozedura bidez emango dira.

Segundo: Aprobar la convocatoria de subvenciones, que incorpora las bases, para empresas de Eibar que realicen contratos con alumnos/as en formación dual, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada

Hirugarrena: diru-laguntza hauek ematetik sortuko diren gastuei aurre egiteko 40.000 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen Udal Aurrekontuko 1.1000.471.06.241.00 partidari egotziko zaiona."

Tercero: Aprobar un gasto por importe de 40.000 €, con cargo a la partida 1.1000.471.06.241.00, del vigente presupuesto de la Corporación para atender los gastos que se deriven de la concesión de la subvención."

Lehendabizi Mendicute jaunak hartu du hitza; adierazi du enplegagarritasuna eta kontratazioa hobetzeko xedez, bai talde sozialistak, bai talde jeltzaleak zuzendu egin

Interviene en primer lugar el señor Mendicute quien afirma que en este objetivo de la mejora de la empleabilidad y la contratación, tanto el

zituztela aurrekontuak; aurrekontu-akordioaren barruan dagoela jasota talde sozialistaren zuzenketa, eta horren jatorria 2016ean partidu sozialistaren, partidu jeltzalearen eta Irabaziren artean sinatutako aurrekontu-akordioan dagoela, langabetuentzako laguntza-lerroa sendotzeko akordioa.

grupo socialista, como el grupo nacionalista enmendaron los presupuestos, que dentro del acuerdo presupuestario está recogida la enmienda del grupo socialista, y que esto tiene su origen en el acuerdo presupuestario firmado a tres bandas entre el partido socialista, el partido nacionalista e Irabazi en el año 2016 para reforzar la línea de ayudas para las personas desempleadas.

Gaineratu du udal gisa erantzukizun bat dutela, gauza jakian delako Eibar Gipuzkoako langabeziaren podiumean dagoela.

Añade que como ayuntamiento tienen una responsabilidad, pues ya se sabe que Eibar está en el pódium del paro de Gipuzkoa.

Lan gehiago sortu behar da eta kalitate handiagokoa, jarraitu du; eta, horretarako, enpresa gehiago sortu behar dira eta sortutako enpresei gehiago lagundu, baina epe motzera kontratazioa laguntzeko erronka dago.

Hay que crear más trabajo y de más calidad, prosigue, para lo cual hay que crear más empresas y ayudar a las empresas creadas, pero a corto plazo está el reto de ayudar a la contratación.

Gogoratu du, duela urte batzuk, udal politikoei galdetzen zitzaienean zer egin behar zen krisiari aurre egiteko, aipatzen zela zuzeneko kontratazio eta proiektuak sustatzea, Errebal edo Ospitalea eredutzat jarrita, eta baita trebakuntza ere; hortaz, bere taldeak ontzat hartzen ditu esku-hartze horiek, poliki-poliki eta guztion esfortzuarekin aurrera goazelako; eta agintaldi honetan zerbait lortu bada, hori izan da bultzada ekonomikoa eta enplegua agenda politikoan kokatzea.

Recuerda, continua, que hace unos años, cuando se preguntaba a los responsables políticos municipales que había que hacer para hacer frente a la crisis se mencionaba la contratación directa e impulsar proyectos, poniéndose como ejemplo Errebal o el Hospital, y también la formación, por lo que su grupo toma con agrado estas actuaciones porque poco a poco y con el esfuerzo de todos se va caminando y si algo se ha logrado en esta legislatura es que el impulso económico y el empleo figuren en la agenda política.

Amaitu du esanez kasu honetan, garapen ekonomikoa baino gehiago gizarte politika egiten ari dela, eta helburua kontratazioa bultzatzea dela; eta, horren haritik, bere taldeak berretsi egiten du bere konpromisoa eta irizpena onartuko duela.

Finaliza afirmando que en este caso concreto, más que desarrollo económico; se trata de política social y que el objetivo es el impulso para la contratación, y que en este sentido, su grupo renueva su compromiso y aprobará el dictamen.

Aguirre andreak hartu du hitza; berak ere ondo deritzo irizpenari, uste duelako formazio duala biderik onena dela, teoria ez ezik praktikak egitea ere oso beharrezkoa delako eta bide onena formazioa aberasteko.

Interviene la señora Aguirre, ella también apoyara el dictamen porque cree que de cara al futuro esta formación dual es el mejor camino, pues no solo teoría sino hacer practica es muy necesario y el mejor camino para enriquecer la formación.

Aurreko irizpena botazioan jarrita, etorri diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los señores y señoras asistentes.

4.- Oinarriak eta diru-laguntza deialdia, “langabezian edo enplegua hobetu nahian ari diren  pertsonek prestakuntza-ekintzak egin ditzaten”, onartzeko proposame na.

4.- Propuesta de aprobación de Convocatoria y Bases de subvenciones “para que las personas desempleadas o en situación de mejora de empleo de Eibar realicen acciones formativas”.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“IKUSITA:

“VISTOS:

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen Instruktoreak egin duen proposamena.
II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariaren aldeko txostena

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.
II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozkatu du. Hona hemen bozketaren emaitza: aldeko botoak, 4 (Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albistegui eta Patricia Arrizabalaga); abstentzioak, 5 (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibañez, Eva Juez eta Mª Jesus Aguirre). Horren ondorioz, Udal Osoko Bilkurari erabaki hauek onartzeko eskatu dio:

AURRENA: ONARTZEA gastua, 30.000,00 eurokoa, "1.1000.480.20.241.00 Langabetuen formakuntzarako diru-laguntzak" izeneko partidari egotziko zaiona. Partida hori Udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta diru-laguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

BIGARRENA: ONARTZEA diru-laguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak diru-laguntzak eman ditzan "langabezian edo enplegua hobetu nahian ari diren pertsonek prestakuntza-ekintzak egin ditzaten".

Mendicute jaunak hartu du hitza; esan du

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui y Patricia Arrizabalaga) y 5 abstenciones (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

PRIMERO: APROBAR un gasto por importe de 30.000,00 € con cargo a la partida "1.1000.480.20.241.00 subvención a la formación para desempleados", del vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

SEGUNDO: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones "para las personas desempleadas o en situación de mejora de empleo de Eibar realicen acciones formativas".

Interviene el señor Mendicute quien

kontu hau ere akordio batean hartu zela partidu sozialistaren eta partidu jeltzalearen artean aurrekontuen inguruan, eta 2016an partidu horiek Irabazirekin lortu zuten akordioan duela jatorria.

afirma que este asunto es también por un acuerdo entre el partido socialista y el partido nacionalista sobre los presupuestos y que tiene también su origen en el acuerdo que en el 2016 lograron estos partidos con Irabazi.

Askotan aipatzen da enpresen eskarien eta langabetuen profilaren artean dagoen desegokitzapena, eta desegokitzapen hori konpondu nahian, proiektu hau landu da.

Muchas veces, continúa, se menciona el desajuste existente entre las demandas de las empresas y el perfil de las personas desempleadas, y en el deseo de arreglar este desajuste, se ha elaborado este proyecto.

Aipatu den bezala, helburua da enpresa gehiago sortzea, gehiago kontratatzea, eskatutako profila duten langileak eskaintzea, eta langabeek aukera gehiago izatea lan-merkatuan, eta, orobat, beste lanpostu batzuk betetzea, hala, libre geratzen diren postuak beste pertsona batzuek bete ditzaten.

Añade que tal como se ha dicho, el objetivo es que se creen más empresas, y que se contrate más, y ofrecer trabajadores con el perfil demandado, y que las personas desempleadas tengan más oportunidades en el mercado de trabajo, así como el acceso a otros puestos de forma que dejen sus ocupantes estos puestos libres para otras personas.

Aurrerago dio datu ezaguna dela diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen % 70ek ez dituztela derrigorrezko ikasketak baino, eta helburua dela pertsona horiei laguntzea.

Dice más adelante que es conocido que el 70% de los perceptores de la renta de garantía social no tienen más que los estudios obligatorios, y que de lo que se trata es de ayudar a estas personas.

Jarraian Aguirre andreak hartu du hitza; esan du abstenitu egingo dela puntu honetan, lehen ere esan duelako zer alde dagoen langabeen eta lan hobeago baten bila dabiltzanen artean: batzuek dagoeneko lan-esperientzia izan eta prestakuntzaren eta prestakuntzarako bidean oso erraz

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que se va a abstener en este punto porque ya ha venido diciendo que la diferencia entre los desempleados y los que optan por una mejora de empleo es que unos ya tienen la experiencia y se mueven muy

mugitzen diren bitartean, beste batzuk askoz ere galduago daude, eta horiexek dira langabetuak.

fácilmente en el mundo de la formación y el acceso a la formación, y otros están mucho más perdidos, que son los que están desempleados.

Gaineratu du bi deialdi egotea nahiko lukeela; bata langabeentzat, eta bestea lana hobetu nahian dabiltzanentzat, beti kaltetuta ateratzen direlako batere lanik gabe daudenak.

Añade que le gustaría que se creasen dos convocatorios; una para los desempleados, y otra para la mejora de empleo, porque siempre salen perjudicados los que están sin ningún empleo.

Alkate jaunak adierazi du komentatu zela batzordean laguntza-lerro espezifikoak daudela langabetuentzat.

Indica el señor Alcalde que ya se comentó en la comisión que hay líneas de ayudas específicas para desempleados.

Aurreko irizpena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (20): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos (20): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

5.- Oinarriak eta diru-laguntza deialdia, “Ekintzailetza, enpresen finkapena eta ondorengotza laguntzeko digu-laguntzak” onartzeko proposamena.

5.- Propuesta de aprobación de Convocatoria y Bases de subvenciones “para el apoyo al emprendimiento, consolidación y sucesión de empresas”.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“IKUSITA:

“VISTOS:

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen Instruktoreak egin duen proposamena.
II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariaren aldeko txostena
III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.
II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.
III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozkatu du. Hona hemen bozketaren emaitza: aldeko botoak, 4 (Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albistegui eta Patricia Arrizabalaga); abstentzioak, 5 (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibañez, Eva Juez eta Mª Jesus Aguirre). Horren ondorioz, Udal Osoko Bilkurari erabaki hauek onartzeko eskatu dio

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui y Patricia Arrizabalaga) y 5 abstenciones (Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

AURRENA: ONARTZEA gastua, 95.000,00

PRIMERO: APROBAR un gasto por

eurokoa, “1.1000.471.02.241.00 Beste enpresa batzuei” izeneko partidari egotziko zaiona. Partida hori Udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta diru-laguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

importe de 95.000,00 € con cargo a la partida “1.1000.471.02.241.00 subvención a otras empresas. Ayudas a emprendedores”, del vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

BIGARRENA: ONARTZEA diru-laguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak “Ekintzailetza, enpresen finkapena eta ondorengotza laguntzeko digu-laguntzak” eman ditzan.

SEGUNDO: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de “Subvenciones para el apoyo al emprendimiento, consolidación y sucesión de empresas.”

Errasti jaunak hartu du hitza eta esan du, aurreko puntuetan ikusi den bezala, bere taldeak garapen ekonomikoarekin lotutako gaiak babestuko dituela.

Interviene el señor Errasti quien afirma que, como se ha visto por los anteriores puntos, su grupo va a apoyar los temas relacionados con el desarrollo económico.

Gainera, aurreko bi gaiak langabeei edo lan prekarioa dutenei zuzenduta zeuden, eta ekintzailetzarako deialdi hau ere babestuko dute, uste dutelako lerro bat egon behar dela ekintzailetzarako; baina haratago joan behar dela irizten diote.

Los dos temas anteriores, continua, además iban dirigidos a las personas desempleadas, o con un trabajo precario y esta convocatoria para el emprendimiento también la apoyarán porque creen que tiene que haber una línea de apoyo al emprendimiento, pero considerando que hay que ir más allá.

Bestalde, jarraitu du, erakundeek ekintzailetza hainbeste azpimarratzeak irakurketa arriskutsua izan dezake, ematen duelako aukerak sortzeko erantzukizuna norbanakoaren gain dagoela; eta jende

Por otra parte, prosigue, el énfasis que desde las instituciones se hace del emprendimiento puede tener una lectura bastante peligrosa porque parece que la responsabilidad recae en el propio

guztia ez da indentifikatua sentitzen ekitearekin eta autoenplegua sortzearekin.

Aurrerago dio kontuan hartu behar dela zein den Eibarko langabetuaren profila, esan den bezala, % 70ek ez duelako kualifikaziorik.
Jarraitu du esaten Lanaldi edo Gidatu bezalako programek, langabeen profil horretako pertsonei bideratuak, atal iraunkor bat merezi dutela garapen ekonomikoko aurrekontuan, eta jarduera puntualekin nekez emango zaiola buelta Eibarren eta Debabarrenean dagoen egoerari.

Esan du, halaber, Bildu prest dagoela ildo horretatik alderdi sozialistarekin akordio batera iristeko, eta laneratze-programa iraunkor bat jartzeko langabeentzat, alegia, diru-laguntzen mende ez dauden ekintzak ezartzeko prest dagoela.

Errasti jaunak gogoratu du proposatu zutenean Lantegi-eskola martxan jartzea, batzuek eskuak burura eraman zituztela, eta orain modu batera edo bestera martxan jarriko dela, zeren eta hasierako lanbide-heziketan eraikinen mantentze-lanak irakatsiko baitira, eta horixe zen eurek planteatzen zutena lantegi-eskolarako; eta Udalari eman berri zaio diru-laguntza bat arreta sozio-sanitarioetako ziurtagiriak emateko, eta hori ere eskatzen zutela.

individuo para la generación de sus propias oportunidades; y no toda la población se siente identificada con el hecho de emprender y el autoempleo.
Dice más adelante que hay que tener en cuenta el perfil de la persona desempleada en Eibar, pues como se ha dicho, el 70% no tiene cualificación.
Sigue afirmando que programas como Lanaldi, o Gidatu enfocados a este perfil de personas desempleadas merecen un apartado estable en el presupuesto de desarrollo económico, y que con actuaciones puntuales, difícilmente se puede dar la vuelta a la situación que padece Eibar y Debabarrena.

Dice así mismo que Bildu está dispuesto a llegar a un acuerdo con el partido socialista en este sentido, y estabilizar un programa de inserción laboral para las personas desempleadas, actuaciones que no dependan de una subvención.
Recuerda que cuando propusieron volver a poner en marcha la Escuela taller algunos se llevaron las manos a la cabeza, y que ahora de una u otra forma se va a poner en marcha, pues en la formación profesional inicial se va a impartir mantenimiento de edificios, que es lo que planteaban para la escuela taller y se acaba de conceder una subvención al ayuntamiento para emitir certificados de cuidados socio-

Gaineratu du badakitela oso zaila dela Udalak langabezia-tasari buelta eman ahal izatea, eta beste erakunde batzuek ekintzak jarri behar dituztela martxan; eta Eusko Jaurlaritzak ez badu ez Eibarrera, ez Debabarrenera begiratzen, Udalak behartu egin beharko duela begiratzera.

Amaitu du esaten beharrezkotzat jotzen duela Eibarren eta Debabarrenean Berrindustrializazio Plan bat martxan jartzea, industriak normalean aberastasuna ekartzen duelako, eta galdu diren lanpostu gehienak industriarekin lotuta daudelako.

Jarraian Mendicute jaunak hartu du hitza; adierazi du puntu hau aurrekontuaren parte dela, eta halaber 2016ko aurrekontu-akordioan duela jatorria; orduan 300.000 euro esleitu baitziren, eta haietatik 30.000 enpresen finkatzea eta ondorengotza egiteko direla.

Bere taldea sinetsita dago balio erantsiko sektorean enpresak sortzearen aldeko apustua, edo dauden enpresak hazi, lekuz aldatu edo ondorengotza sustatzearen aldeko apustuak ezin direla zalantzan jarri Eibarko langabezia-tasak Gipuzkoako handienetakoak direnean, eta Plan estrategikoak berak aipatzen duenean bostehun bat enpresa suntsitu direla.

sanitarios, que también lo pedían.

Añade que también saben que es muy difícil que el ayuntamiento pueda dar la vuelta a la tasa de paro y que otras instituciones tiene que poner en marcha actuaciones, si el Gobierno Vasco no mira ni a Eibar, ni a Debabarrena, el ayuntamiento le tendrá que obligar a que mire.

Finaliza afirmando que cree que es necesario poner en marcha en Eibar y Debabarrena un Plan de Reindustrialización pues la industria normalmente aporta riqueza y la mayoría de los puestos eliminados, están relacionados con la industria.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que este punto es parte del presupuesto y que también tiene su origen en el acuerdo presupuestario de 2016, dotándose entonces con 300.000 euros de los que 30.000 son para apoyar la consolidación y sucesión de empresas.

Su grupo está convencido, continua, que apostar por la creación de empresas en el sector de valor añadido, así como para el aumento o traslado o el relevo generacional, son apuestas que no pueden ofrecer ningún género de dudas, cuando la tasa de desempleo en Eibar es una de las mayores que se registran en Gipuzkoa, y cuando el propio Plan estratégico habla de cerca

de medio millar de empresas destruidas.

Ontzat eman dezake, jarraitu du, beste erakunde batzuek beren hondar-alea jarri behar izatea, baina pertsona batek minen bat duenean, medikuak ez dio ezer aginduko kontsultara ez badoa, eta, hortaz, batek egin behar duen lehenengo gauza da minen bat duela onartu medikuaren laguntza eskatzeko; eta tratamendua emango diote ala ez, baina ez badu onartzen nekez artatuko du medikuak.

Puede dar por bueno, prosigue, que otras instituciones tengan que poner su granito de arena, pero cuando una persona tiene una dolencia el médico no le diagnostica nada si no va a consulta y por tanto la persona lo primero que tiene que hacer es reconocer que le duele algo para pedir ayuda médica y le puedan dar un tratamiento, pero si no reconoce es difícil que el médico le pueda atender.

Egia da pertsona guztiak ezin direla enpresaburu izan, baina gaurko ekintzaileak dira biharko enpresaburuak, eta, beraz, ekintzaileen aldeko apustua egin behar da, askotan arazoa ez baita zenbat enpresa suntsitu diren, baizik eta ea zenbat enpresa berrik ordezten dituzten suntsitutakoak.

Es verdad, dice más adelante, que no todas las personas pueden ser empresarias pero las personas emprendedoras de hoy son las personas empresarias de mañana y por tanto hay que apostar por las personas emprendedoras porque el problema a veces no es cuántas empresas se destruyen sino cuántas empresas nuevas sustituyen a las empresas destruidas.

Gaineratu du Ibarretxe lehendakariak zioela herri batzuk beste batzuetatik eta pertsona batzuk beste batzuetatik bereizten dituena ez dela zenbat aldiz jausten diren, baizik eta zenbat bider altxatzen diren; eta Eibarrek erakutsi duela zailtasunen aurrean berrasmatu egin duela bere burua, eta enpresa batzuk suntsitu badira ere berriak sortu direla.

Añade que el Lendakari Ibarretxe decía que lo que diferencia unos pueblos de otros y unas personas de otras, no es las veces que caen sino la rapidez con que se levantan, y Eibar ha demostrado que ante las dificultades se ha reconvertido y ante la destrucción de unas empresas han surgido otras.

Gaur egun berrogeita hamar pertsona ekintzaile irteten badira, jarraitu du, agian laurden bat gai izango da etorkizunean

Si hoy salen cincuenta personas emprendedoras, prosigue, tal vez la cuarta parte sea capaz en un futuro de

enplegua sortzeko, eta horixe izango litzateke soluzioa, zeren gaur egun enpresak badaude edo mantentzen badira hori da bere garaian pertsona batzuk egon zirelako haien aldeko apustua egin zutenak.

crear empleo y esta sería la solución porque las empresas que hoy día hay o se mantienen es porque en su día hubo personas que apostaron por ellas.

Jarraitu du esaten, bere ustez, ariketa osasuntsua litzatekeela enpresaburuei prestigioa ematea, izan ere, diana askoren erdigunean agon baitira, eta horregatik bere taldeak planteatu zuen enpresaburuei nolabaiteko omenen bat egitea, eta Toribio Etxebarria sarien barruan Eibarko proiektuak saritzea.

Continua afirmando que cree que se debe de hacer un ejercicio sano de prestigiar las personas empresarias, que han estado en el centro de muchas dianas, y que por ello su grupo planteó que se les hiciera algún tipo de distinción a las empresas y empresarios y que dentro de los premios Toribio Etxebarria se premien proyectos eibarreses.

Amaitu du esanez bere taldearen asmoa dela Eibar ekintzaile-hiri bat izatea eta aldeko ekosistema bat sortzea proiektu berrietan inbertsioak egiteko.

Finaliza afirmando que su grupo aspira a que Eibar sea una ciudad de emprendimiento y cree un ecosistema favorable a que se invierta en nuevos proyectos.

Jarraian alkate jaunak hartu du hitza; esan du Errasti jaunak eta Mendicute jaunak bi hitzaldi osagarri izan dituztela, alegia, ez dela bata edo bestea aukeratu behar, baizik eta batu; esan nahi du ekintzaileengan jarri behar dela arreta, baina baita, inguruabarrak direla medio, ekintzaile izateko gai ez diren pertsonengan ere.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que cree que el señor Errasti y el señor Mendicute han tenido dos discursos complementarios, en el sentido de que no hay que elegir; sino sumar; esto es que hay que fijarse en el emprendimiento pero también en las personas que, por sus circunstancias, no son capaces de ser emprendedoras.

Mendicute jaunaren hitzei jarraituz, Udalari egiten badio aipamena, esango lioke Udalak eskatu duela hitzordua eta itxaron-zerrendan dagoela aspalditik, askotan

Siguiendo las palabras del señor Mendicute, continua, le diría que si se refiere al ayuntamiento, éste ha solicitado cita y está en la lista de

eskatu baitu erakunde guztien lankidetza.

espera hace mucho tiempo, pues ha reclamado colaboración de todas las instituciones en muchas ocasiones.

Gaineratu du erakunde guztiak prest badaude gurdiari alde berera egiteko tiraka, emaitzak askoz ere hobeak izango direla orain egiten ari dena baino; eta berak beti esan duela erakunde guztiek dituztela eskumenak eta erantzukizunak, eta eskumen eta ardura horiek batuta egin daitezkeela proiektuak, ekosistema bat sortuko dutenak aberastea, lana sortzea eta gizarte hobea izatea ahalbidetzeko.

Añade que si todas las instituciones son capaces de empujar el carro hacia el mismo lado, los resultados serán mucho mejores, que si se hace como más o menos, se está haciendo ahora, y que él siempre ha dicho que todas las instituciones tienen competencias y responsabilidades, y que con la suma de estas competencias y responsabilidades se pueden elaborar proyectos que creen ese ecosistema que permita enriquecer, crear empleo y tener una sociedad algo mejor.

Mendicute jaunak adierazi du jakin nahiko lukeela ea zer hitzordu eskatu dituen Udalak eta udal gobernuak, eta bere burua eskaintzen duela —elkarrizketa egiteko gaitasuna duen neurrian— laguntza emateko edo baita alkate jaunari laguntzeko ere; baina ez duela uste ez Eusko Jaurlaritzak, ez Foru Aldundiak ukatzen dizkietenik bilerak alkateei proiektuak kudeatzeko.

Indica el señor Mendicute que le gustaría saber qué citas ha pedido el ayuntamiento y el gobierno municipal y que se ofrece, en la medida que tenga capacidad de interlocución, para prestar ayuda o incluso, acompañar al señor Alcalde, pero que no cree que ni el Gobierno Vasco ni la Diputación Foral denieguen reuniones a los alcalde para gestionar proyectos.

Amaitu du esanez berak aipatu duela hor egotearen onarpen bat egon beharra dagoela, baina kontua da Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundiaren edo Espainiako Gobernuaren politikak berdinak direla Bergaran, Durangon edo Zarautzen, eta onarpen bat egon behar dela, eta baita lidergotza bate ere, ez baita lidergotza hori

Finaliza afirmando que él se ha referido a que tiene que haber un reconocimiento de que se está pero porque lo cierto es que las políticas del Gobierno Vasco, Diputación o Gobierno de España son las mismas que para con Bergara, Durango o Zarautz, y hay que tener un reconocimiento y asumir el

behar zen irmotasunez hartu.

liderazgo que no se ha hecho con la enjundia que merece.

Alkate jaunak dio Mendicute jaunak konparazio bat erabili duela eta berak ere bai, eta hitzordu bat duela, eskatu zuenetik bi hilabete eta erdira.

Indica el señor Alcalde que el señor Mendicute ha utilizado un símil y que él lo ha utilizado también, y que tiene una cita que han conseguido después de dos meses y medio de pedirla.

Egoera objektiboki konplexu baten aurrean, amaitu du, Udalak aldez eta moldez aldarrikatu du aldeko tratamendu positibo bat izan behar duela, beste eskualde batzuetan egin den bezala.

Ante una situación objetivamente complicada, concluye, desde el ayuntamiento se ha revindicado por activa y por pasiva, un tratamiento discriminatorio positivo, como se ha hecho con otras comarcas.

Aurreko irizpena botazioan jarrita, etorri diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los señores y señoras asistentes.

4. ATALA. Urgentziak.

PUNTO 4: Urgencias

San Andres Fundazioaren Batzarrak egindako proposamena herriko bokala izendatzeko.

Propuesta de la Junta de la Fundación Pública San Andrés de designación de vocal vecino.

Idazkari andreak honako akordio hau irakurri du, San Andres Fundazio Publikoaren Batzarraren maiatzaren 17ko bilkuraren aktan jasota dagoenez.

La Secretaria da lectura al siguiente acuerdo según acta de la sesión de 17 de mayo de la Junta de la Fundación Pública San Andrés.

“Zubizarreta andreak adierazi du, Fernando Etxarri jaunak utzitako lekua betetzeko, aurreko Batzarrean hauxe erabaki zela: agerian uztea bokal kargu bat hutsik

“Indica la señora Zubizarreta que ante la vacante dejada por Don Fernando Etxarri, en la anterior Junta se acordo poner de manifiesto en la residencia la

zegoela egoitzan, senideren batek Batzarreko kide izan nahi bazuen.

existencia de una vacante por si algún familiar mostraba interés en formar parte de la Junta.

Gaineratzen du bilkura bat egin eta egoitzan senide bi dituen Felipe Romero Herrera jaunak Fundazioko Batzarreko kide izan nahi duela adierazi duela.

Añade que convocada una reunión al efecto, ha expresado interés en formar parte de la Junta de la Fundacion Don Felipe Romero Herrera, quien tiene dos familiares en la residencia.

Horren ondorioz, Udal Osoko bilkurari eskatzen zaio, Fernando Etxarri Zumelaga jaunak emandako dimisioarekin herriko bokal kargu bat hutsik geratu denez, San Andres Fundazioko Batzarraren herriko bokal Felipe Romero Herrera jauna izendatzea (NANa: *************), ************************* bizi dena.

En consecuencia, se acuerda solicilitar al Pleno Municipal que ante la vacante producida por la dimisión de Don Fernando Etxarri Zumelaga, se designe como vocal vecino de la Junta de la Fundacion Publica San Andrés a Don Felipe Romero Herrera con DNI ********* A y domiciliado en ****************

Gaia urgentziazko deklaratzeko bozketa egin eta aho batez onartu da.

Sometida a votación la declaración de urgencia del asunto, se aprueba por unanimidad.

Felipe Romero Herrera jauna San Andres Fundazio Publikoko Batzarraren herriko bokal izendatzeko bozketa egin da eta aho batez onartu da.

Sometida a votación la designación de Don. Felipe Romero Herrera como vocal vecino de la Junta de la Fundación Pública San Andrés, se aprueba por unanimidad.

5. ATALA Irabazi taldeak aurkeztu duen mozioa “Erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa”rekin bat egiteko.

PUNTO 5º Moción presentada por el grupo Irabazi relativa a la adhesión al “Programa de compra y contratación pública verde”.

Idazkariak testu hau irakurri du:

“JUSTIFIKAZIOA

Herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik, udalak funtsezko zeregina du ingurumena zaintzeko helburuari begira, udalak berak praktika onak izateko orduan, bai zuzenean horretan laguntze aldera eta baita, horretaz gain, gobernu onaren eredua erakuste aldera ere.

"Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea" prozesuaren bitartez, agintari publikoak saiatu egiten dira salerosgaiak, zerbitzuak edo obrak eskuratzerakoan horrek ahalik eta ingurumen-eragin txikiena izan dezala produktu horien bizi-iraupeneko zikloan zehar, betiere haien ordez oinarrian xede bererako aurrez eskuratzen ziren beste salerosgai, zerbitzu eta obra batzuekin alderatuta. Kontuan hartzen dira ez bakarrik alderdi ekonomikoak edo teknikoak, baizik eta produktu horiek beren bizi-iraupenaren ziklo osoan zehar duten ingurumen-eragina ere.

Eta horren eraginez, kontuan hartzekoa izan beharko da erabilitako edo eskuratutako material eta produktu guztien ingurumen-portaera (horien erabilera eta fabrikazio-prozesua barne) eta baita kontratuak burutzerakoan erabilitako

La Secretaria da lectura al siguiente texto:

“JUSTIFICACIÓN

Los ayuntamientos, como las administraciones más próximas a la ciudadanía, deben jugar un papel básico en la adopción de buenas prácticas que además de contribuir directamente a la preservación del medio ambiente, supongan un ejemplo de buen gobierno.

“La Compra y Contratación Pública Verde es un proceso por el cual las autoridades públicas tratan de adquirir mercancías, servicios y obras con un impacto medioambiental reducido. Este tipo de política considera no sólo los aspectos económicos o técnicos, sino también el impacto ambiental de los mismos en todo su ciclo de vida.

Supone tener en cuenta el comportamiento ambiental de los materiales y productos usados o adquiridos, los métodos y procedimientos en la ejecución de los contratos y el comportamiento ambiental

metodo eta prozedurak ere, eta horretaz gain hornitzaileen eta ekoizleen beraien ingurumen-portaera ere.

Kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzea garrantzitsua da batez ere honako arrazoi hauengatik:

– Euskal Administrazio Publikoaren erosketa eta kontratazio-bolumena, gutxi gorabehera, EAEko BPGaren % 14 inguruan kokatzen da; beraz, ingurumenaren ikuspegitik produktu eta zerbitzu hobeak erostera aldatzeak eragin garrantzizkoa izan dezake produkzio-eredu iraunkorrago baterantz berbideratzeko eta enpresen ingurumen-portaera eta ekoizten dituzten produktuen ingurumen-kalitatea hobeak izan daitezen laguntzeko.

– Erosketa eta kontratazio publiko berdea, oro har ulertuta, oso tresna eraginkorra da administrazioaren beraren ingurumen-talka murrizteko eta, era horretan, guztion ongizatean eta bizi-kalitatean hobera egiten laguntzeko.

– Erosketa eta kontratazio publiko berdeari esker, aldarrikatzen dena praktikan jar daiteke, bai eta herritarrei eskatzen zaien iraunkortasun eta ingurumenarekiko errespetu betebeharrekin koherente izan ere. Administrazioak eredu bihurtzen dira, eta beraien irudia ere hobetu egiten dute.

de los proveedores y de los propios fabricantes.

La introducción de criterios ambientales en la contratación pública es importante principalmente por las siguientes razones:

- El volumen de compra y contratación de la Administración Pública Vasca supone alrededor del 14% del PIB del País Vasco, por tanto un cambio hacia la adquisición de productos y servicios ambientalmente más eficientes supone un importante impacto en la reorientación hacia un modelo de producción para nuestro territorio.

- La compra y contratación pública verde entendida de forma global es un instrumento muy efectivo para reducir el impacto ambiental del funcionamiento de la propia Administración y así contribuir a la mejora del bienestar común y la calidad de vida.

- La compra y contratación pública verde permite predicar con el ejemplo y ser Administraciones coherentes con los requerimientos de sostenibilidad y respeto al medioambiente que se solicita a la ciudadanía. Muestra la ejemplaridad de las administraciones, mejorando su imagen.

– Sektore pribatuari bultzada ematen diote, enpresen arteko lehiakortasuna sustatuz, beren ingurumen-portaera eta erreputazioa hobetuz, eta ingurumen aldetik hobeak diren produktuen eta zerbitzuen merkatu berriak garatzen lagunduz.

MOZIOA

Eibarko Udaleko Udalbatzak proposatzen du Udal honek erabaki dezala 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berderako Programa-rekin bat egitea eta konpromisoa hartzea ingurumen-irizpideak erabiltzeko produktuak erostean eta kontratazioetan.

Honako hauek hartuko ditu kontuan:

1. 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berderako Programarekin bat egitea, gehienez ere 6 hilabeteko epean.

2. Pixkanaka, ingurumen-irizpideak sartuz joatea udaleko sailek eta mendeko organismoek produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatu behar dituztenerako.

3. Ingurumen-irizpideak erabiltzeko konpromisoa hartzea, bai laguntza, bai obrak edo zerbitzuak kontratatzeko lehiaketak adjudikatzeko onartzen diren baldintza administratiboen pleguetan.

- Impulsa el sector privado, fomentando la competitividad de las empresas, su mejor comportamiento ambiental y reputación, y promueve el desarrollo de nuevos mercados de productos y servicios ambientalmente mejores.

MOCIÓN

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar propone que este Ayuntamiento acuerde su adhesión al Programa de Compra y Contratación Pública Verde del País Vasco 2020 y se comprometa a incorporar criterios medioambientales en la compra de productos y contrataciones.

Por ello insta al Gobierno Municipal a:

1. La adhesión al Programa de Compra y Contratación Pública Verde del País Vasco 2020 en un plazo máximo de 6 meses.
2. La incorporación progresiva de criterios ambientales en la compra de productos y contratación de servicios de las distintas áreas y organismos dependientes.
3. La inclusión de criterios ambientales en los pliegos de las cláusulas administrativas que se aprueben para la adjudicación de los concursos de consultoría, asistencia,

obras y servicios.

4. Lan-talde bat sortzea Erosketa eta Kontratazio Berde Publikoaren Politikan aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko.

4. La creación de un Grupo de Trabajo que se encargue de liderar las acciones prevista en la Política de Compra y Contratación Verde Pública

5. Laneko Plan bat idaztea honako hauek guztiak finkatuko dituena: lehentasunak, neur daitezkeen helburuak, jarraipen-adierazleak eta helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeko sistemak.

5. La elaboración de un Plan de Trabajo que contemple el establecimiento de prioridades, objetivos cuantificables, indicadores de seguimiento y sistemas de verificación de consecución de metas.

6. Barnerako Komunikazio Plan bat prestatzea, Udalean ari diren pertsonentzat, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Politikaren berri emateko, eta administrazioaren jardunean ingurumenarekin ohitura eta praktika onak txertatzea ahalbidetuko du."

6. La elaboración de una Estrategia de Comunicación interna y externa: para el personal municipal y proveedores, con el objetivo de implantar hábitos y buenas prácticas ambientales en el funcionamiento de la administración y para que contribuya a la consecución de las metas y objetivos de esta nueva política municipal."

Aguirre andreak hartu du hitza; adierazi du kontua gehiago dela izapide bat, 2016tik dagoen programa batekin bat egitea dakarrelako; 2017an ez zela egon inolako programarik, baina 2018an ingurumenean interesa duten erakunde guztiak daudela sartuta, eta erosketa berde hau onartu dutela.

Interviene la señora Aguirre quien afirma que se trata más bien de un trámite ya que lo que conlleva es la adhesión a un programa que ya lleva desde el 2016, que en 2017 no hubo ningún programa pero que en el 2018 todos las instituciones que tienen interés en el medio ambiente están involucradas y han aceptado esta

compra verde.

Gaineratu du aurten helburua dela ingurumenarekin lotura duten produktu eta zerbitzuen hamar multzoren lizitazioaren % 50era iristea; hauexek dira produktu eta zerbitzu horiek: papera, ordenagailuak, inpresio-ekipoak, eraikinen garbiketa, ibilgailuak, elikadura, lorezaintza, errepideen garbiketa, obra zibila eta azpiegiturak.

Añade que para este año el objetivo es el resultado de un 50% de las licitaciones de diez grupos de productos y servicios ambientalizados como papel, ordenadores, equipos de impresión, limpieza de edificios, vehículos, alimentación, jardinería, limpieza viaria, obra civil e infraestructuras.

Jarraitu du esaten galdetu zuela ingurumenean ea paper birziklatua erabil zitekeen, probak egin direla inprimagailuekin eta badirudi aurrera jarraitu daitekeela programarekin.

Prosigue diciendo que preguntó en medio ambiente si se podría utilizar papel reciclado, que se han hecho pruebas con las impresoras y que parece que se puede seguir adelante con el programa.

Lerro estrategiko horiek, jarraitu du, hala nola neurriak ezartzea, kontratazio-motak, sentsibilizazioa, merkatuarekin koordinatzea, zabalkundea etab… horrek guztiak kudeaketa eta gobernantza eredu bat dakar, lehentasuna emango diona ahal den neurrian ingurumenaren inpaktua saihesteari eta jarduera egokiak sustatzeari, produktuen manipulazioak eta kontratazioak erosketa berdea izan dezaten jomuga.

Estas líneas estratégicas, continúa, de implementación, tipo de contratación, sensibilización, coordinación con el mercado, divulgación etc. supone un modelo de gestión y de gobernanza que va primar el evitar en lo posible el impacto medio ambiental y el fomentar prácticas que ayuden a que las manipulaciones de los productos y las contrataciones tengan como horizonte la compra verde.

Amaitu du esanez asmoa dela Udalak programarekin bat egitea, eta arduradun bat egotea hura aurrera eramateko, eta kalte egin baino gehiago on egingo duela jardunbide egokiak erakusten dituelako.

Finaliza afirmando que se trata simplemente de que el ayuntamiento se adhiera, disponiendo de una persona responsable para llevar adelante el programa, y que en vez de perjudicar beneficia porque señala las buenas prácticas.

Jarraian Ibañez andreak hartu du hitza. Hasi da esaten Aguirre andreari eskerrak ematen dizkiola azalpenagatik, onartu behar duelako ez zuela programa horren berri.

Jarraitu du esaten gaiaz interesa jarri duenean zalantza bat sortu zaiola, zeren programarekin bat egiten duten enpresen artean Udalsarea dago, eta Udalsare barruan Eibar ere badago.

Gaineratu du bere taldeak aldeko botoa emango duela, uste baitu jardunbide egokiak sartu behar direla, eta eranskina irakurtzen bada, bat egiten duten enpresen konpromiso batzuk azaltzen dira; eta uste du badagoela zer egina, eta ez lukeela nahi akordioa, beste batzuetan bezala, itxurazko eta alferrikakoa izatea; gauzak sinetsita egin behar dira eta hartutako konpromisoak zein diren jakinda.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien comienza agradeciendo a la señora Aguirre la explicación, ya que tiene que reconocer que no conocía mucho este programa.

Sigue afirmando que cuando se ha interesado por el tema le ha surgido una duda ya que entre las empresas adheridas a este programa está Udalsarea y en Udalsarea está también Eibar.

Añade que su grupo va a votar a favor ya que entiende que hay que introducir buenas prácticas, y si se lee el anexo aparecen unos compromisos de las empresas adheridas, que considera que hay trabajo por hacer, y que no le gustaría que se convierta el acuerdo, como otras veces, en un brindis al sol, debiéndose hacer las cosas con convicción y sabiendo los compromisos adquiridos.

Aguirre andreak adierazi du saiatuko dela ahalik eta jarraipen hurbilena egiten, akordioa betetzeko.

Estaziño kaleko saihesbidearen irteerak epaitegian amaitu zuen, eta ikusi egin beharko da zein diren inguru horretako beharrak, zeren bizilagun gehienek garaje-plaza bat dute babes ofizialeko etxebizitzari lotua, eta, beraz, desberdinak dira bizilagunen premiak eta han bizi ez direnenak, edo kanpotik gestioak egitera etortzen direnen premiak.

cambios, y así la salida de la variante en la calle Estación acabo en el juzgado, y habrá que ver las necesidades del entorno pues la verdad es que la mayoría de los vecinos disponen de la plaza de garaje vinculada a la vivienda VPO y por tanto, son diferentes las necesidades de los vecinos a las de otros eibarreses que no viven allí, o incluso a las de los que vienen de fuera a hacer gestiones.

Jarraitu du esaten Udalak kontuan izango dituela auzokideen iritziak; baina parte-hartzea eskatzen da eta, hemen, mahai gainean jarri zen Ipuruako aterpetxea auzotarren iritzia jaso barik.

Prosigue que el ayuntamiento tendrá en cuenta la opinión de los vecinos, pero que la verdad es que se reclama participación, y aquí se puso sobre la mesa un albergue en Ipurua, sin recabar la opinión de los vecinos.

Aurrerago dio Irabaziren moziotik ezin dutela onartu esatea ezin dutela ezer egin, zeren aurreproiektu bat egin nahi baitute, non jasoko den zer joango den leku horretan, zer espazio sortuko diren, zenbat kostatuko den eta horretaz hitz egin; eta, azkenean, ikusten bada auzotarrak kontra daudela, edo udal gehiengoak ez duela proiektua egin nahi, aurrekontu-partidaren tresna dago, diru-partidarik ez badago ez baita proiektua gauzatuko.

Dice más adelante que lo que no pueden aceptar de la moción de Irabazi es que se les diga que no pueden hacer nada, pues lo que desean es elaborara un anteproyecto donde se contemple el resultado final de lo que va a ir allí, y qué espacios se van a generar, saber lo que va a costar y discutir sobre ello, y si al final resulta que por la oposición de los vecinos, o por mayoría municipal no se desea hacer el proyecto, está la herramienta de la dotación presupuestaria, pues si no se le dota no se hará el proyecto.

Ondo irizten dio Trafiko Batzordean gai horiek eztabaidatzeari, Bilduren mozioan esaten den bezala, baina uste du harekin batera lan arkitektoniko eta urbanistiko bat

Está de acuerdo, prosigue, en que en la Comisión de Trafico se hable de estos temas, como dice la moción de Bildu, pero entiende que paralelamente se

jar daitekeela mahai gainean.

puede poner encima de la mesa un trabajo arquitectónico, y urbanístico.

Amaitu du esaten bere taldeak Bilduren mozioaren alde egingo duela, uste duelako ideia ona dela abiapuntu gisa, eta iritsiera-puntua Udalak erabakiko duela.

Finaliza afirmando que su grupo apoyará la moción de Bildu porque considera que es una buena idea como punto de partida, y que el punto de llegada será el que el ayuntamiento decida.

Aguirre andreak hartu du hitza berriz ere; adierazi du lekuz kanpo dagoela Ipuruako aterpetxearen aipamena; izan ere, bere taldeak ezin zuen pausorik eman jakin barik gobernu taldeak zer erabaki zezakeen aurkeztutako zuzenketaren gainean, eta ez zuen ezagutzen zer iritzi izan zezakeen jendeak.

Interviene de nuevo la señora Aguirre quien afirma que está fuera de lugar la mención al albergue de Ipurua pues precisamente su grupo no podía dar ningún paso sin saber lo que el equipo de gobierno podría decidir sobre la enmienda presentada, y no conocía para nada la acogida o no que se podría tener.

Aparkalekuari dagokionez, jarraitu du, harrigarria egin zaio ez egotea ezer aldez aurretik gaia planteatzen laguntzeko.

En cuanto al aparcamiento, continua, le ha sorprendido mucho que no hubiera previamente nada que les hubiera ayudado a plantear el tema.

Gaineratu du prozesua erabat zentzugabea izan dela, dena izan delako prentsara eta sare sozialetara ateratzea, eta berak jakin duenez, auzokoak ez daude ideiarekin ados.

Añade que el proceso ha sido totalmente descabellado, pues todo ha sido salir a la prensa y a las redes sociales y por lo que ha sabido, los vecinos no comparten para nada la idea.

Amaitu du esaten hainbeste leku egonda lonja abandonatuekin edo utzita dauden pabiloiekin, hala nola Matsaria aldea edo "El Casco", jakin gabe zertarako erabili edo nola eman buelta, ez du arrazoirik ikusten auzo honi berdegune hori kentzeko.

Finaliza afirmando que existiendo tantos lugares con lonjas abandonadas y pabellones en ruina, como es la zona de Matsaria o “el Casco” sin saber en qué emplearlos o como darle la vuelta, no ve razón para privar a este vecindario de un espacio verde que no va a

generarles más que molestias.

Lamarain andreak dio alkate jaunak bigarren puntua azpimarratu duela, baina bere taldearentzat garrantzitsuena lehen puntua dela, alegia, gogoeta bat egiteko beharra kontuan hartuta Mugikortasun Plana, zeinak soluzio batzuk proposatzen dituen; eta ez geratzea ea Ardantzako aparkalekua egiten den ala ez.

Indica la señora Lamarain que el señor Alcalde ha hecho hincapié en el segundo punto pero que para su grupo lo importante es el primer punto, la necesidad de efectuar una reflexión, teniendo en cuenta el Plan de Movilidad que propone un serie de soluciones; y no quedarse en si se efectúa o no el aparcamiento de Ardanza.

Mendicute jaunak hartu du hitza esateko desegokia eta populista iruditu zaiola Ipuruako aterpetxeari buruzko komentarioa.

Gaineratu du bilkura honetan onartu zena espazioaren balorazioa izan zela, eta balorazio horren barruan tarte bat egon daitekeela kontsultarako eta partaidetzarako, eta ondo egongo litzatekeela bilkura honen eskaerari kontu egitea, etxerik gabeko jendeak aterpetxe bat izan dezan Eibarren.

Amaitu du esaten beharrezkoa dela gogoeta bat egitea aparkalekuen arazoari erantzun integral bat emateko.

Interviene el señor Mendicute para afirmar que sinceramente le ha parecido desafortunado y populista el comentario sobre el albergue de Ipurua.

Añade que en este pleno lo que se aprobó fue la valoración del espacio, y que dentro de esa valoración puede haber un espacio para la consulta y la participación, y que estaría bien que se atendiera la demanda de este pleno de que Eibar tenga un albergue para las personas transeúntes.

Finaliza insistiendo en la necesidad de una reflexión para una respuesta integral al problema de los aparcamientos.

Alkate jaunak ez du onartzen bera populistatzat jotzea, batzuetan besteak direla dirudienean.

Afirma el señor Alcalde que no acepta que se le acuse de populista, cuando a veces lo parece que lo hacen otros.

Gaineratu du berak bakarrik esan duela planteatuko zaiela Ardantzako auzotarrei erabaki dezaten ea aparkalekurik egongo den ala ez, baina beste gune batzuetako auzotarrekin ere adostu beharko dela, eta dendariekin; eta Ipuruako aterpetxea egiteko mozioa aurkeztu zenean, auzotarrei galdetzea sar zitekeela, berak bakarrik esan duela ez zela sartu mozioan auzotarrei galdetzea.

Añade que él sólo ha dicho que se planteará a los vecinos de Ardanza para que decidan si va a haber o no aparcamientos, pero que también habrá que consensuar con los vecinos de otras zonas y con los comerciantes, y que cuando se presentó la moción que recogía la realización de un albergue en Ipurua, se podría haber incorporado el consenso con el vecindario, que sólo ha dicho que no se incorporó a la moción la variable del consenso con los vecinos.

Aguirre andreak eskatu du hitza, eta esan du berak aurreratu zuela aterpea lortuz gero, bera prest zegoela auzotarrak deitu eta proposamena azaltzeko.

La señora Aguirre pide la palabra para decir que ella ya anticipó que si se conseguía el albergue, ella misma se prestaba a convocar a los vecinos y explicarles la propuesta.

EH Bildu taldeak aurkeztu duen mozio alternatiboa botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Finalmente, sometida a votación la moción alternativa presentada por el grupo Bildu, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (15): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Votos afirmativos (15): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Ezezko botoak (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstentzioak (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos negativos (1): ninguno. Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

8. ATALA Eibarko EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen mozioa Eibarko kaleetatik amiantoa kentzeari buruz.

PUNTO 8º Moción presentada por el grupo Eibarko EAJ-PNV relativa a la eliminación del amianto de las calles de Eibar.

Mozio hau irakurri da:

Se da lectura a la siguiente Moción:

“ZIOA

Eibarko Udal Batzarrak 2017ko martxoan onetsitako akordio proposamen baten ondorioz, Udal Gobernuak txosten bat egin eta aurkeztu behar zuen Ingurugiro Batzorde Aholkularian, sei hileko epean, Eibarko hirian amiantoak eragin ditzakeen kalteak ekiditzeko neurriak jasoko zituena. Txosten horrek fibrozementoaren hondakinen kudeaketaren egoera jasoko zuen, eta baita inbentario bat ere, amiantoa duten edo izan zezaketen eraikin publiko zein pribatu guztiena. Helburua zen europar helburuarekin bat egin eta Udalak zegozkion neurri guztiak hartzea, bere kaleetatik amiantoa desagerrarazte aldera. Hamalau hilabete pasa dira, eta hainbat

“MOTIVO

El Pleno Municipal del mes de marzo de 2017 aprobó una propuesta de acuerdo por la que el Goberno Municipal tenía que realizar un informe en el que se reflejaran las medidas a adoptar para evitar los daños que puede causar el amianto en la ciudad de Eibar y presentarlo en la Comisión Asesora de Medio Ambiente en un plazo de seis meses. Dicho informe tenía que plasmar la situación de la gestión de los residuos de fibrocemento, y dispondría también de un inventario de todos los edificios públicos y privados que contengan o puedan contener amianto. El objetivo era unirse al objetivo europeo y que el

aldiz eskatu arren, ez da txosten horren berririk egon. Hori dela eta, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak ondorengo akordio proposamena egiten du, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan.

Ayuntamiento adoptase todas las medidas que le correspondan con el fin de hacer desaparecer el amianto de sus calles. Han transcurrido catorce meses desde la adopción de dicho acuerdo y, a pesar de haberlo solicitado en reiteradas ocasiones, no ha habido noticias del citado informe. Por todo ello, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV efectúa la siguiente propuesta de acuerdo para que el Pleno Municipal debata y vote la misma:

AKORDIO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO:

Eibarko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Ingurugiro Batzorde Aholkularian berehala aurkez dezala txostena, Eibarko hirian amiantoak eragin ditzakeen kalteak ekiditzeko neurriak jasoko dituena."

La Corporación municipal solicita al Gobierno Municipal que presente inmediatamente el informe en el que se recogan las medidas para evitar los daños que pueda causar el amianto en la ciudad de Eibar en la Comisión Asesora de Medio Ambiente."

Mendicute jaunak hasi du hitz egiteko txanda, eta esan du 2013ko martxoan Europako Parlamentuak ebazpen bat onartu zuela, Europako Batasunetik amiantoa 2028rako desagerraraztea eskatzen zuena.

Inicia el turno de intervenciones el Sr. Mendicute y dice que en marzo del año 2013 el Parlamento Europeo aprobó una resolución en la que se pedía hacer desaparecer el amianto en la Unión Europa para el 2028.

2017ko martxoan, Udal honek —aho batez uste du— onartu zuen bere Taldeak aurkeztutako mozio bat, planteatzen zuena

Que en marzo de 2017 este Ayuntamiento, cree recordar que por unanimidad, aprobó una moción que

txosten bat egitea neurriak jasoz amiantoak Eibarren eragindako kalteak saihesteko. Txosten hori —zeinak jasotzen zuen amiantoa izan zezaketen eraikin publiko nahiz pribatu guztien inbentarioa— sei hilabeteko epean aurkeztu behar zen Ingurumenaren Aholku Batzordean; hamalau hilabete igaro dira eta oraindik ez da gai horretan aurrerapenik egin.

presentó su Grupo y por la que se planteaba la elaboración de un informe con las medidas a adoptar para evitar los daños que pudiese causar el amianto en la ciudad de Eibar. Que la elaboración de dicho informe, que incluía el inventario de todos los edificios públicos y privados que contuviesen o pudiesen contener amianto, tenía que haberse presentado en un plazo de seis meses ante la Comisión Asesora de Medio Ambiente; y que la realidad es que han pasado catorce meses y no se han producido avances en este asunto.

Axular gogoan, “zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak.”

Trayendo a colación a Axular, “cuánto perjuicio causa el andar retrasando las cuestiones, el dejar para luego los quehaceres.”

2017ko martxoan, jarraitu du, mozio hori jorratu zenean, gogoratu zen 60 eta 80ko hamarkadetan 245 eraikin baino gehiago jaso zirela Eibarren, tailerrez gain, eta badakitela eraikin horietako gehienek amiantoa dutela. Mozioa aurkezterakoan egiten zuten galdera, eta gaurko egunean ere egiten dutena da ea zenbat amianto dagoen Eibarren. Adierazi du datua ez dela ezagutzen, eta seguru asko inbentarioa egiten denean ere ez dela zehatz-mehatz ezagutuko, baina estatuko beste udal askotan egiten ari den bezala, inbentario bat izatea gutxienez neurri bat dela

En marzo de 2017, prosigue, cuando se trató dicha moción, se recordaba que entre las décadas de los años 60 y 80 se edificaron más de 245 edificios en Eibar, aparte de talleres, y se sabe que la mayoría de dichos edificios tienen amianto. La pregunta que se hacían en el momento de presentar la moción, y que se siguen haciendose a día de hoy, es cuánto amianto hay en Eibar. Indica que ese dato no se conoce, y que posiblemente cuando se realice el inventario no se conocerá en exactitud, pero que tal y como se está realizando

Europako helburua lortzeko; izan ere, 10 urte baino ez dira falta, eta denbora aurrera doa. Mendicute jaunak dio badakitela amiantoa ez dela egun batetik bestera ezabatuko, baina horrexegatik uste dute neurriak hartzen hasi beharra dagoela.

en muchos municipios del resto del estado, un inventario supone por lo menos una medida para conseguir el objetivo europeo, ya que a día de hoy sólo faltan 10 años, pues el tiempo va hacia adelante. Afirma que saben que la eliminación del amianto no se conseguirá de un día para otro, pero que por eso mismo creen que hay comenzar a tomar medidas para ello.

Adierazi du bere taldeak proposamen bat egin zuela, eraikinen fatxadak zaharberritzeko laguntzen barruan amiantoa kentzekoak ere sar zitezen.

Recuerda que su grupo realizó una propuesta planteando que dentro de las ayudas a rehabilitación de fachadas de edificios, se incluyesen los desamiantados.

Berretsi du bere taldeak Europako helburua betetzeko konpromisoa daukala; iaz esan zutela eta orain ere esaten dutela; eta hori lortzeko detektatu egin behar da zeintzuk diren amiantoa duten eraikinak, gero ezabatu eraikin publikoetatik, eta baita lagundu ere eraikin pribatuetatik ezabatzeko.

Insiste en que su grupo tiene compromiso de cumplir con el objetivo europeo, que lo dijeron el año pasado y lo dicen ahora; y que para conseguirlo hay que detectar los edificios que tienen amianto, después eliminarlo de los edificios públicos y también prestar ayuda para que se elimine de los edificios privados.

Jarraitu du esaten harrigarria egiten zaiola bere taldearen mozioari erdibideko mozioa aurkeztu izana, saiatu direlako 2017an hartutako akordioan ahalik eta gehien oinarritzen tirabirarik ez izateko; eta akordioak hauxe jasotzen zuen:

Continúa diciendo que les parece sorprendente que se haya presentado una moción alternativa a la de su grupo, ya que han intentado basarse lo máximo posible en el acuerdo ya tomado de 2017 para evitar fricciones; y que aquel acuerdo recogía lo siguiente:

Eibarko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten bat egin dezala, Eibarko hirian amiantoak eragin ditzakeen kalteak ekiditzeko neurriak jasoko dituena. Txosten horrek fibrozementoaren hondakinen kudeaketaren egoera jasoko du, eta baita inbentario bat ere, amiantoa duten edo izan dezaketen eraikin publiko zein pribatu guztiena. Helburua da europar helburuarekin bat egin eta Udalak dagozkion neurri guztiak hartzea, bere kaleetatik amiantoa desagerrarazte aldera. Eibarko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten hori sei hileko epean egin eta Ingurugiro Batzorde Aholkularian aurkeztu dezala."

El Pleno solicita al gobierno municipal que haga un informe en el que se plasmen las medidas a adoptar para evitar los daños que pueda causar el amianto en la ciudad de Eibar. Dicho informe plasmará la situación de la gestión de los residuos de fibrocemento, y dispondrá también de un inventario de todos los edificios públicos y privados que contienen o puedan contener amianto. El objetivo es unirse al citado objetivo europeo y que el Ayuntamiento adopte todas las medidas que le correspondan con el fin de hacer desaparecer el amianto de sus calles. El Pleno municipal eibarrés solicita al gobierno municipal que haga dicho informe en un plazo de seis meses y lo presente ante la comisión asesora de Medio Ambiente.

Mendicute jaunak errepikatu du ez direla sei hilabete pasatu, baizik eta hamalau, eta mozio hau aurkezterakoan epe motzagoa jartzea pentsatu zutela inbentarioa aurkezteko, esaterako, hilabete; baina, azkenean, erabaki dutela eperik ez jartzea, baizik eta inbentario hori lehenbailehen eskatzea. Izan ere, berretsi du, hau ez da gai berri bat, zeren eta bere taldeak 2017an kontu hori planteatu baino lehen, 2016an jada Udalak onartu zuen, Comisiones Obreras sindikatuaren proposamenez, ea zein zen Udalaren instalazioetako, industria-pabiloietako,

Repite el Sr. Mendicute que tiene que insistir en que no han pasado seis meses, sino catorce, y que aunque en el momento de presentar esta moción pensaron en establecer un nuevo plazo más corto para la presentación del inventario, de por ejemplo un mes; finalmente han decidido no poner plazo, sino solicitar que se realice cuanto antes dicho inventario. Ya que, insiste, este no es un tema nuevo, pues antes de que su grupo plantease en 2017 este asunto, ya en 2016 el Ayuntamiento aprobó, a propuesta del Sindicato

ganaduetarako instalazioetako eta beste eraikin batzuetako amiantoaren erabilera, eta horren inbentario bat egitea.

Comisiones Obreras, la realización de un inventario del uso del amianto en los instalaciones municipales, pabellones industriales, ganaderos y otras construcciones del municipio; y finaliza diciendo que su grupo aspira conseguir una ciudad libre de amianto y por ello han presentado de nuevo la moción.

Lamarain andreak dio bere taldeak arazo bat daukala: ados dagoela bai EAJ-PNV taldeak aurkeztutako mozioarekin, bai PSOEk aurkeztutakoarekin ere; eta harrigarri egiten zaiola aurrekontuak erabakitzeko ados jarri diren bi talde ez jartzea ados haien ustez funtsean hain desberdin ez diren testuetan, nahiko antzekoak baitira; hortaz, esfortzu bat egitea eskatzen die, ados jar daitezen testu bakarrean.

La Sra. Lamarain indica que su grupo tiene un problema y es que está de acuerdo con lo planteado tanto en la moción que presenta EAJ-PNV como en la alternativa que presente el PSOE; y que le llama la atención que dos grupos que se han puesto de acuerdo para pactar los presupuestos, no lo hagan con unos textos de moción que a su parecer no tienen una diferencia sustancial y que son bastante parecidos; por lo que les pide un esfuerzo para que se pongan de acuerdo en un único texto.

Alkate jaunak hartu du hitza eta esan du ahaleginduko dela bere erdibideko mozioa azaltzen.

Interviene el Sr. Alcalde para decir que va a intentar explicar su moción alternativa.

Adierazi du 2017an Eusko Alderdi Jeltzaleak mozio bat aurkeztu zuela, eta hitz egin zela —hitz egiteko txandaren barruan gehiago mozioaren testu barruan baino— inbentarioaz eta 2002an Eusko

Indica que efectivamente se presentó una moción por el Partido Nacionalista Vasco en 2017 y que se habló -más dentro del turno de intervenciones que dentro del texto de la moción-, del

Jaurlaritzako akordioaz, zeinak Eusko Jaurlaritza hertsatzen baitzuen inbentario bat egin zezan —udalekin eta herritarrekin lankidetzan—, langileen eta auzotarren osasuna babestea bermatzeko, amiantoa kentzeko lanetan. Eta eskatu zen OSALANek udalei aholkularitza ematea amiantoaren Mapa bat egiteko, hura egitea errazte aldera.

inventario y sobre el acuerdo del Parlamento Vasco de 2002 que instaba al Gobierno Vasco a realizar, en colaboración con los ayuntamientos y la ciudadanía, un inventario para garantizar la protección de la salud de los trabajadores y vecinos en las tareas de desamiantado. Y que desde OSALAN se asesorase a los ayuntamientos para la elaboración de un Mapa del amianto, con el fin de facilitarles la realización del mismo.

Alkate jaunak adierazi du pertsonalki bildu dela OSALANeko teknikariekin, eta ez diotela argitu ea zerbait egin behar den amiantoko mapak direla eta.

Indica que se ha reunido personalmente con técnicos de OSALAN y que tampoco le han aclarado si se va a hacer algo en cuanto a mapas de amianto.

Berak, adibidez, Portugaleteko kasua ezagutzen duela, non hainbat gauza garrantzitsu egin diren: udal eraikinetatik amiantoa aztertu eta erretiratu, fibrozementuzko ur-hodi guztiak progresiboki erretiratu, eta baita udal langileak trebatu ere amiantoa manipulatzeak dakarren arriskua saihesteko —haiek dira-eta ura kudeatzen dutenak—.

Que él conoce, por ejemplo, el caso de Portugalete, donde se han hecho varias cosas muy importantes: el estudio y retirada de amianto en los edificios municipales, la retirada progresiva de todas las tuberías de agua de fibrocemento, así como formar a los trabajadores municipales para evitar el peligro que supone su manipulación, -ya que son ellos los que gestionan el agua-.

Alkateak adierazi du Eibarko Udala egiten ari dela udal eraikinetako amiantoaren azterketa, eta hartu beharreko neurriak ere

Informa que en el Ayuntamiento de Eibar está realizado el estudio del amianto en los edificios municipales, así

hartu dituela, eta akordio bat dagoela Ur Kontsortzioarekin pixkanaka-pixkanaka fibrozementuzko hodi guztiak erretiratzeko.

como tomadas las medidas necesarias, y que existe un acuerdo con el Consorcio de Aguas para retirar progresivamente todas las tuberías de fibrocemento.

Amaitu du esanez Udalaren nahia dela mapa hori OSALANen bitartez egitea, eta horregatik insistitu egingo dutela; baina hurrengo bileran ez badira inora ailegatzen, eta ez bada aurreratzen, udal bitarteko propioekin egitea planteatuko dela, nahiz eta askoz garestiagoa izan.

Finaliza diciendo que el deseo del Ayuntamiento es que ese mapa se realice a través de OSALAN, y que por ello van a insistir; pero que si en la próxima reunión no se llega a nada, ni se avanza, se planteará realizarlo con medios propios municipales, aunque resulte mucho más caro.

Mendicute jaunak eskatu du lanari ekitea eta pausoak ematea, eta gero OSALAN prest badago lan hori bere gain hartzeko parlamentuaren aginduari jarraituta, Udalaren lanarekin bat egin dezala.

El Sr. Mendicute pide que se inicie el trabajo y se comience a andar, y que si luego OSALAN está dispuesto a asumir ese trabajo siguiendo el mandato parlamentario, se una al trabajo del Ayuntamiento.

Eta horrela, bilkura hartan Seneca ekartzen zen hizpidera, eta esaten zen “lan bat beste batzuen hasiera dela"; eta, hortaz, konpromisoa bere gain har dezatela eskatzen dute.

Y que así, en aquel pleno se recordaba a Séneca y se decía que “un trabajo es el principio de otros”; por lo que piden se asuma el compromiso.

Alkate jaunak dio zehaztu nahi duela OSALANi egindako erreferentzia lehenik Mendicutek egin zuela 2017ko martxoaren bilkuran. Eta berak uste duela OSALAN dela orain arte lan egiteko izan duten

El Sr. Alcalde indica que desea matizar que la referencia a OSALAN fue realizada en primer lugar por el Sr. Mendicute en la sesión de marzo de 2017. Y que él cree que OSALAN es la

erreminta eta ez dela galdu behar OSALANekin herriko amiantoaren mapa egitea kudeatzeko aukera.

herramienta con la que han trabajado hasta ahora y que no debe perderse la oportunidad de gestionar con OSALAN la realización del mapa de amianto de la ciudad.

Saiatuko dela berriz ere OSALANen erantzun formal bat lortzen idatziz herrietako amianto-mapa egiteko borondateari buruz, eta, haren erantzuna kontuan hartuta jokatuko dela; hortaz, une honetan proposatzen duena da, bitartean, aurkeztutako bi mozioak erretiratzea.

Que intentará de nuevo conseguir una respuesta formal por escrito de OSALAN sobre su voluntad de realizar el mapa de amianto de ciudades, y que, a la vista de su respuesta, se actuará; por lo que en este momento propone que, mientras tanto, se retiren las dos mociones presentadas.

Mendicute jaunak adierazi du horrek errazten badu denek onartzeko moduko akordio bat egotea, ez duela arazorik gaia hurrengo bilkurara eramateko.

El Sr. Mendicute indica que si eso facilita que pueda haber un acuerdo que integre a todos, no tiene problema en que se traslade al próximo pleno el asunto.

Alkate jaunak adierazi du OSALANekin izaten dituen harremanen berri pertsonalki emango duela.

El Sr. Alcalde indica que informará personalmente de los contactos que vaya a tener con OSALAN.

Ondorioz, erretiratu egiten dira bai EAJ-PNV Taldeak aurkeztutako mozioa bai Partidu Sozialistak aurkeztutakoa.

Se retiran por tanto la moción presentada por el Grupo EAJ-PNV y el texto alternativo presentado por el Partido Socialista.

9. ATALA. Galderak eta erreguak.

PUNTO 9º Ruegos y Preguntas.

- Lamarain andrearena: honako galdera hauek egin ditu Txontari buruz.

Adierazi du ez oso aspaldi Txontako Mahaia bildu zela, eta han informazioa eman zitzaiela auzotarrei diru-laguntzen inguruko berrikuntzei buruz; eta, baita ere, Txontan egongo den bulegoari buruz, non teknikari bat egongo den; eta azpimarratu nahi du bere taldearentzat oso garrantzitsua dela teknikari horrek gizarteratze-profilekoa izatea eta uste du halako profila duen pertsona bat izan behar dela bulego horren parte; izan ere, ezin dira ahaztu Txontako formazio-plana eta azterketa sozio-ekonomikoa.

- La de la Sra. Lamarain quien plantea las siguientes preguntas sobre Txonta.

Indica que no hace mucho se reunió la Mesa de Txonta, y que allí se informó a los vecinos sobre las novedades en cuanto a las ayudas existentes y también se habló sobre la oficina que habrá en Txonta, de la que se comenta que contará con un técnico; y que quiere subrayar la importancia que para su grupo tiene la figura de un técnico con perfil de inserción que cree que también debe de formar parte de esa oficina por ser imprescindible, pues no ha de olvidarse el plan de formación y empleo ni el estudio socio-económico de Txonta.

Galdetu du, halaber, ea urratsak eman diren bulegorako kokaleku egokiena zein den erabakitzeko.

Pregunta también si se han dado pasos para decidir la ubicación más adecuada para la oficina.

Bestalde, adierazi du taldeari ez zaiola garbi geratu ea hurrengo ekainean Osoko Bilkuran onartzeko eramango diren oinarriak irekiak egongo diren Txontako bizilagunek ekarpenak egin ditzaten, zalantzak baitituzte behin betikoak diren ala ez.

Por otro lado, indica que a su grupo no le quedó claro si las bases que van a ir a la aprobación del Pleno el próximo mes de junio van a estar abiertas para que el vecindario de Txonta pueda aportar mejoras o cambios a las mismas, pues tiene dudas de si son o no definitivas.

Amaitu du esaten modu asko daudela auzo bat biziberritzeko: bat hirigintzaren ikuspegitik eta beste bat kulturaren ikuspegitik, eta horrekin lotuta gogorarazi

Finaliza diciendo que hay muchas maneras de hacer revivir un barrio, que una es la urbanística y que otra es la cultural, y recuerda que en ese sentido

nahi du badela onartuta dagoen proiektu bat loneta batzuk jarriz zer egiten zen Txontan oroitzeko eta memoria historiko industriala ez galtzeko; eta berak jakin nahiko lukeela nola dauden gestioak proiektu horretan.

existe un proyecto ya aprobado de colocar unas lonetas para recordar qué es lo que se hacía en Txonta y para no perder la memoria histórica industrial; y que le gustaría saber cómo están las gestiones de ese proyecto.

Lehenik, Iraola jaunak erantzun dio Txontako bulegoko kokalekuaren gaiari. Aipatu du kokalekua jakiteko lehenik lizitazio-agiria atera behar dela, eta han azalduko direla zein diren lokalaren baldintzak, eta aurkezten diren lekuen artean, baldintzen agirira ondoen egokitzen dena aukeratuko dela.

Responde el Sr. Iraola en primer lugar sobre la ubicación del local para la oficina de Txonta. Comenta que para saber la ubicación primero hay que sacar el pliego de licitación, donde se expondrán las condiciones que se necesitan para el local y para, de entre todos los que opten, elegir el que mejor cumpla o se ajuste al pliego de condiciones.

Oinarriei ekarpenak egiteari dagokionez, adierazi du ez dela aukera hori aurreikusten, eta, hortaz, ez dagoela inolako eperik jarri auzotarrek aldaketak egin ditzaten. Adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak oinarriei oniritzia eman ez badie ere, egia da funtsezko alderdiak negoziatuta eta itxita daudela, eta, hortaz, ez dela egongo oinarrizko aldaketarik.

En cuanto a la posibilidad de realizar aportaciones a las bases, manifiesta que no se contempla dicha posibilidad, y que por tanto no está previsto ningún plazo para que los vecinos presenten modificaciones. Afirma que aunque el Gobierno Vasco no ha dado el visto bueno definitivo a las bases, sí es cierto que los aspectos esenciales de las mismas están ya negociados y cerrados, y que por tanto no cabe un cambio esencial en las bases.

Iraola jaunak gehitu du funtsezko alderdien berri eman zaiela auzotarrei, eta, oro har ildo horiei jarraituz egingo direla obrak, jasoko direla laguntzak eta ezarriko dela

Añade que estos aspectos esenciales se han trasladado a los vecinos, y que en líneas generales son las obras que se van a realizar, las ayudas que van a

berme-funtsa birgaitze integrala bermatzeko. Amaitu du esanez oinarrietan aldaketaren bat izan arren, funtsezko aldakuntzarik ez dela izango.

recibir y el fondo de garantía para garantizar la rehabilitación integral. Finaliza diciendo que aunque las bases podrían sufrir algún ajuste, no van a sufrir cambios de fondo.

Lamarain andreak eskatutako profileko teknikariaren kontua dela-eta, Iraola jaunak adierazi du gai hori egin beharreko kontu bat dela bai edo bai, diru-laguntzak emateko emakidan datorrelako; baina berak ez duela horren berri eman hirigintzaren aldetik ematen ari delako informazioa, eta alde horretatik dagokiena dela pertsona bat jartzea oinarriak azaltzeko.

Sobre la existencia de un técnico con el perfil solicitado por la Sra. Lamarain, indica que ese es un tema que hay que hacer sí o sí, ya que viene en la orden de concesión de las ayudas; pero que él no ha informado sobre ello porque está informando desde la parte de urbanismo, y que desde esa parte lo que les corresponde es poner a una persona que informe sobre las bases.

Solaceko eraikinean jarri beharreko lonetak direla-eta, eskegitzeko zain daudenak, gogorarazi du diru bat dagoela bideratu gabe; Udalak oniritzia eman ziola olan horiek eskegitzeari, baina espazio pribatu bat denez, Auzotarren Elkarteko presidentea Solaceko jabetzari baimena eskatzekotan geratu zela.

En cuanto a las lonas a colocar en el inmueble de Solac, que están pendientes de colgar, recuerda que hay un dinero que falta por destinar; que por parte del ayuntamiento se dio el visto bueno a la iniciativa de su colocación, pero que dado que se trata de un espacio privado el presidente de la Asociación de Vecinos quedó en encargarse de solicitar permiso a la propiedad de Solac.

Lamarain andreak berretsi egiten du zer garrantzi duen gizarteratze-profileko pertsona bat izatea Txontako bulegoaren parte, eta Iraola jaunari diotso helburuetako bat formazio- eta enplegu-plana garatzea dela; nahiz eta hirigintzaren ikuspegitik hitz egiten ari den.

La Sra. Lamarain insiste en la importancia de que una persona con el perfil de inserción forme parte de la oficina de Txonta, y le dice al Sr. Iraola que uno de los objetivos es desarrollar el plan de formación y empleo; aunque se esté hablando desde el punto

urbanístico.

Iraola jaunak erantzun dio aginduan figura horren obligazioa dagoela jasota, eta berak badakiela horretan lan egiten ari dela, baina ez duela horretaz informaziorik ematen ez dagokiolako berari.

El Sr. Iraola le responde que en la orden está recogida la obligación de esa figura, y que le consta que eso se está trabajando, pero que él no informa sobre ello porque no le corresponde.

- Mendicuterena: galdetu du joan den apirilaren 13an egin ziren gastu batzuen inguruan, hain zuzen, 10 lagunentzako harrera-afari baten ordainketa Eibarko jatetxe batean, eta Jacako hotel batean gau bat, egun batzuk geroago.

Galdetu du ea zeini ordaindu zaion harrera-ekitaldi hori, eta ea zer helbururekin eta zer irizpiderekin erabaki den gastu horiek gastu publiko izan behar direla.

- La del Sr. Mendicute preguntando sobre unos gastos que se realizaron el pasado 13 de abril, consistentes en el pago de una cena de recepción para 10 personas en un restaurante de Eibar y una noche de hotel en Jaca unos días más tarde.

Pregunta a qué personas se les ha pagado esta recepción, con qué objetivo y con qué criterio se ha decidido que esos gastos tienen que ser un gasto público.

Alkate jaunak esan dio uste duela Mendicute jaunak aipagai duen afaria afari protokolario bat izan zela, Jacako eta Sahaguneko alkateei antolatu zitzaien harreraren ondoren egin zena, Errepublika aldarrikatu zuten lehen hiru hirien alkate izateagatik, Eibarko hiriarekin batera.

Egun batzuk geroago, Jacako Udalak Eibarko alkateari gonbita egin zion bere herrian ekitaldi batean parte hartzeko; baina

El Sr. Alcalde le dice que cree que el Sr. Mendicute se estará refiriendo a una cena protocolaria que se hizo después de la recepción que se organizó a los alcaldes de Jaca y de Sahagún por ser los alcaldes de dos ciudades, que junto con Eibar, forman las tres primeras ciudades que proclamaron la República.

Que días después, el Ayuntamiento de Jaca realizó una invitación al Alcalde del Ayuntamiento de Eibar para un acto en

bera ezin izan zenez joan, Udalaren izenean lehen alkateordea joan zen, eta bisita hori izan zela hoteleko gastua eragin zuena eta, uste duenez, baita joan-etorrikoaren gastua ere.

su municipio; pero como él no pudo asistir, acudió en representación del Ayuntamiento de Eibar el primer teniente Alcalde, y que esa visita generó el gasto del hotel y se imagina que también del desplazamiento.

Amaitu du esanez norbaitek pentsa dezakeela ez dela ekitaldi publiko bat, baina gastu horiek gertakari historiko baten ospakizunaren barruan kokatu behar dira, eta Udaleko talde guztiei eta lehen aipatutako alkateei egin zitzaien gonbita; eta ekitaldiaren ondoren, bisita bat egin zela Museora eta afari protokolario bat, eta ez duela uste gehiegikeriarik egin zenik.

Finaliza diciendo que alguien puede creer que no se trata de un acto de carácter público, pero que son gastos generados dentro de la celebración de un hecho histórico, a la que se invitó a todos los grupos municipales y a los alcaldes indicados; y que tras el acto hubo una visita al Museo y una cena protocolaria donde cree que no se hicieron excesos.

- Aguirre andreak eskatu du hitza bere haserrea adierazteko enbolatuak direla-eta Kulturaren Batzorde Aholkulariarekin gertatu denaren aurrean.
Adierazi du duela bi urte erabaki zela ez zela diru publikorik erabiliko animalien aurkako tratu txarretarako, eta batzordeko buruak galdetu zuela ea zer zen animalien aurkako tratu txarra; hori dela-eta berak bi dosier bidali zizkien batzordeko kideei, non laburbiltzen ziren animalien aurkako tratu txarraren ezaugarriak.

- La Sra. Aguirre pide la palabra para expresar su indignación con lo que ha ocurrido con la Comisión Asesora de Cultura respecto a los embolados.
Manifiesta que hace dos años se decidió que no se iba a destinar dinero público para maltrato animal, y que el presidente de la comisión preguntó en qué consistía ese maltrato animal, por lo que ella envió a todos los miembros de la comisión dos dosieres donde se resumían las características del maltrato animal.

Jarraitzen du pentsatzen eztabaidatzeko gaia izango litzatekeela, baina eztabaidatu aurretik eta programan berriz ere sartuko zela jakin baino lehen, hara non ikusten

Sigue pensando que sería un tema de debate, pero que antes de debatirlo y antes de saber que se reincorporaría al programa, se encuentran con que en el

duten aurtengo jai-egitarauan bi egunetan daudela enbolatuak, oposizioko taldeak erabat kontra egon arren.

borrador del programa de fiestas para este año hay dos días de embolados, a pesar del total desacuerdo de los grupos de oposición.

Adierazi du ez zuela uste hori gerta zitekeenik, eta esan nahi du ez dagoela Kultura Batzordearekiko errespeturik, eta esaten denak ez badu ezertarako balio, uste du bera soberan dagoela batzorde horretan.

Indica que no pensaba que esto podía ocurrir, y que desea expresar que no hay respeto por la Comisión de Cultura donde si realmente lo que se dice no sirve para nada, cree que ella sobra en la comisión.

Alkate jaunak erantzun dio esanez duela bi urte erabaki zela diru publikorik ez erabiltzea korridetarako, zezenketarako eta zezen-jaialdietarako.
Animalien aurkako tratu txarren kontzeptua hain da zabala, ezen gauzak zehaztu egin behar diren; izan ere, batzuen ustez animalien aurkako tratu txarrak dira txori kantarien lehiaketa.

El Sr. Alcalde le contesta que lo que se decidió hace dos años fue no se dispusiese de dinero público para corridas, novilladas y festivales taurinos.
Dice que el concepto de maltrato animal es tan extenso que hay que matizar, ya que se han hecho cosas que para algunos supone maltrato animal, como los pájaros cantores.

Lejardi jaunak erantzun dio Aguirre andreari harri eta zur dagoela, ezin dela bi urtean egon gauza berari buruz eztabaidatzen; eta galdetzen dio ea ez duen onartzen "ezezko" bat erantzun gisa, edo bere iritziarekin bat ez datorrena.

El Sr. Lejardi le dice a la Sra. Aguirre que él no sale de su asombro, y que no se puede estar dos años discutiendo sobre lo mismo; por lo que le pregunta si no acepta un “no” por respuesta o una contestación que no sea acorde a lo que ella opina.

Dioenez, hitz egin zen tratu txarrei buruz, eta dosierretan zezen suzkoaren gainean hitz egiten zen, baina hemen asmoa ez da goizean bigantxa batzuk ateratzea baino, eta bere ustez hori ez da animaliei tratu

Dice que se habló de lo que suponía el maltrato animal, y que en los dosieres se hablaba del toro de fuego, pero que aquí no se pretende más que volver a recuperar el sacar una vaquillas por la

txarrak ematea.

mañana, que él considera que no es maltrato animal.

Adierazi du kontsekuenteak izan behar direla; Aguirre andrearen ustez, guztia da animalien aurkako tratu txar, baina beste batzuen ustez ez, eta egin beharreko gogoeta bat dela.

Indica que hay que ser consecuentes, que según la Sra. Aguirre maltrato animal es todo, pero para otros no lo es, y que es una reflexión que hay que hacer.

Alkate jaunak dio eztabaida hori batzorde barruan egin behar dela, baina ez hemen Osoko Bilkuran.

El Sr. Alcalde indica que ese es un debate que cree debe darse dentro de la comisión, pero no aquí en Pleno.

- Ibañez andrearena: galdetu du Mogeli Europatik emandako diru-laguntzen inguruan.
Adierazi du 200.000 euro falta zirela justifikatzeko, eta jakin nahi duela ea azkenean etorri behar diren ala ez.

- La Sra. Ibañez pregunta sobre las ayudas europeas a Mogel.

Indica que faltaban por justificar 200.000 euros y que desea saber si finalmente van a llegar o no van a llegar.

Telleria andreak erantzun dio esanez horren kudeaketa Tecnaliarena dela, nahiz eta Udala bazkide izan; eta badaki dokumentazioa Europako Batasunera bidali dela, eta izapideak luze eta korapilatusak izan arren berak ez du dudarik diru-laguntza iritsi iritsiko dela.

Le contesta la Sra. Telleria diciendo que la gestión la lleva Tecnalia, aunque el ayuntamiento es socio; y que le consta que la documentación está remitida a la Unión Europea, y que aunque los trámites son farragosos ella no tiene ninguna duda de que la subvención llegará.

- Ibañez andrearena: adierazi du 2017ko diru-laguntzak aztertuta, atentzioa eman diola ikastetxeetarako eskatu zen 50.000

- La de la Sra. Ibañez diciendo que analizando las subvenciones de 2017, le ha llamado la atención que de una

euroko diru-laguntza batetik 11.000 euro bakarrik jaso direla; eta Hiriguneko beste bat dagoela Blas Etxeberriako koexistentziarako, 34.500 euro lortzea aurreikusita zegoen eta 19.350 eurori eman zaiela baja.

subvención de 50.000 euros que se solicitó para centros escolares sólo se han recibido 11.000 euros; y hay otra de Hirigune para el tema de la coexistencia de Blas Etxeberria, que estaban previstos conseguir 34.500 euros y se han dado de baja 10.350 euros.

Galdetu du ea diru-laguntza horiek galdu diren dokumentazioa ez aurkezteagatik.

Pregunta si se han perdido esas subvenciones por no haber presentado documentación.

Alkate jaunak erantzun dio hala, bat-batean, ezin duela erantzun; baina, kontu-hartzaile jaunari eskatuko diola informazioa.

Le contesta el Sr. Alcalde que así, a bote pronto, no puede contestar; pero que no obstante solicitará la información al Sr. Interventor.

Eta gainontzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko hamarrak eta erdiak izanik, Alkate jaunak bilerari amaiera eman dio, eta, guzti honi, nik, Idazkari Orokor naizen honek fede ematen diot.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintidós horas treinta minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.